

SAN FERMIN 2018
FESTEN PROGRAMA
IRUÑA, UZTAILAK 6—14



Literatura protagonista duelarik, sanferminetako programaren edizio hau hizkuntzaren aldarria ere bada, gizakion elementu bereizgarri gisara, bai eta festak alaitasunetik, elkar ulertzetik eta begirunetik bizitzeko (eta ezagutzeko) gonbita ere. Ezagutzea diogu, bai horixe. Izan ere, literatura plataforma ezin hobea da irudimenari ekiteko, eta, zergatik ez, munduari jakinarazteko sanferminak direla ezarritako topikoa baino askoz ere gehiago.

Irakurleek sanferminei buruzko hogeita zortzi mikronarrazio topatuko dituzte, literatura unibertsaleko egileen beste hainbeste obretatik hautatuak. Hamalau gaztelaniaz, eta hamalau euskaraz. Cervantes, Goethe, Dovstoevski, Tolstoi, Verne, Shelley, Kafka, Woolf, Munroe... Baten batek galdetuko dio bere buruari: Iruñeko festei buruz mintzo ote dira liburu goren horiek, eta guk jakin ez? Ez zehazki. Oulipo taldeak nola, testuetan esku hartu dugu guk geuk ezarritako arau zorrotz-zorrotz gutxi batzuen arabera: liburu bakoitzaren lehen paragrafoak bakarrik erabili ditugu, abiapuntu gisara, eta hortik aurrera gorriz zirrimarratu ditugu “traba” egiten ziguten hitzak, hemen aurkezten ditugun mikronarrazioak sortu arte. Eskailera, suziria, entzierroa, tradizioa, gaua, parranda, ajea, topaketak, maitasuna... Hori dena zegoen misterioz gordeta testu handi horietan. Metaliteraturaren festa hutsa.


ARGITALPENA Iruñeko Udala
HITZAURREA Nafarroako Dantzarien Biltzarra
KONTZEPTUA ETA DISEINUA Errea Comunicación
TESTUAK Javier Errea (gaztelaniaz) eta Jon Alonso (euskaraz)
INPRIMAKETA Gráficas Biak
LEGE-GORDAILUA LG NA 671-2014
SANFERMINETAKO KARTELA
Adriana Eransus Azpilicueta
HEDAPENA ETA BANAKETA
Iruñeko Udala
Kultura eta Hezkuntzako Alorra
Descalzos, 72. 31001 Iruña
cultura@pamplona.es
www.pamplona.es

OR.	MIKRONARRAZIOA	JATORRIZKO OBRA
4	Profitatu beharra	Harrotasuna eta aurrejuzguak
6	Betikoak	Lorategiko festa
8	Edaten dute, gero	Jockeya
10	Amona parrandan	Jende ona nekez da aurkitzen
12	Lehen urratsa ematea	Diamantearen plaza
14	Ezaren zer zati ez duzu ulertu?	Etsaiak, lagunak, ezkongaiak, maitaleak, senar-emazteak
16	Mundu osoan ez da halakorik	Frankenstein
18	Erakarmena	Maitalea
20	Diosala eguzkiari	Komedia jainkotiarra
22	Trabestia	2666: krimenen partea
24	78ko Sanferminak	Michel K. bere bizitza, bere garaia
26	Giria erori da	Hirugarren gizona
28	Rocka gauez	Mikel Strogoff
30	Iruñea San Ferminetan...	Gero

ARGAZKIEN KREDITUAK
© Georgia College and State University (Flannery O'Connor). © Fundació Mercè Rodoreda. Institut d'Estudis Catalans (Mercè Rodoreda). © Roger Viollet (Marguerite Duras). © Alamy Stock (Antoine de St-Exupéry, Katherine Mansfield, Mario Vargas Llosa, Alice Munro, Doris Lessing, Gabriel García Márquez, Roberto Bolaño eta J.M Coetzee). Gainerako irudiak jabari publikokoak dira.

Nazioarteko interes turistikoko jaiak,
1980az geroztik
© Iruñeko Udala

SAN FERMIN 2018
FESTEN PROGRAMA
IRUÑA, UZTAILAK 6—14



Mundu zabalean aho batez onartutako egia da fortuna handiaren jabe den gizon ezkongai batek emaztearen bila ibili behar duela. Halako gizon bat auzune batera lehenbiziko aldiz ailegatzean, haren sentimendu eta iritziak inortxok ere ez ezagutu arren, aipatutako egia hain dago sartuta inguruko familien gogoan, non, gizon hori beren alaba baten edo besteren legezko jabegotzat jotzen baitute. «Ene Bennet jauna», esan zuen Bennet jaunaren andereak egun batean, «entzun al duzu Netherfield Park alokatu egin dutela azkenean?» Bennet jaunak ezetz erantzun zion. «Bada, hala da» ekin zion berriro andereak. «Izan ere, Long anderea oraintsu izan da hemen eta horri buruzko guztia kontatu dit». Bennet jaunak ez zuen erantzunik eman. «Ez al duzu jakin nahi nork hartu duen?» hots egin zion emazteak ezinegotz. «Zeuk nahi didazu esan, eta nik ez dut eragozpenik jarriko entzuteko». Hori bazen gonbidapenik asko. «Hara, maitea, jakin behar duzu Long andereak esan duela Ingalaterrako iparraldeko gizon gazte batek, fortuna handi baten jabea bera, hartu duela Netherfield; astelehenean lau zaldiko kalesan etorri zela lekua ikusteko, eta, hain atsegina iruditu zitzaiola non segituan jarri baitzen ados Morris jaunarekin; San Migel eguna baino lehenago aldatuko dela etxe berrira, eta bere zerbitzari batzuk datorren astearen bukaerarako izango direla bertan». «Zelan du izena?» «Bingley» «Ezkontdua ala ezkongabea?» «O! Ezkongabea, maitea, zalantzarik gabe! Fortuna handiaren jabe den gizon ezkongabea, hain justu; lauzpabost mila urtean. Hori bai berri ona gure neskentzat!» «Zelan bada? Zer eragin izan dezake horrek gure alabengan?» «Bennet jauna, ene maitea», erantzun zion emazteak, «nola izan zaitezke horren gogaikarria! Jakin ezazu Bingley jauna gure nesketakoren batekin ezkontzeari buruz ari naizela pentsatzen». «Hori al du helburu berton ezartzean?» «Helburua! Hori zentzugabekeria! Nola mintza zintezke horrela! Ez da hori, noski, baina oso erraz gerta liteke gizona haletakoren batekin maitemintzea, eta, horregatik, Bingley jauna etorri bezain laster, bisita egin beharko diozu». «Ez dut horretarako aukera egokirik ikusten. Neskatilek eta zeu joan zaitezketek, edo, agian hobe dena, eurak eurretara bidali. Izan ere, zu haletako edozein bezain ederra zarenez gero, baliteke zu zeu izatea taldeko liluragarriena Bingley jaunarentzat». «Lausengua dituzu horiek, ene maitea. Ni ere izan nintzen ederra garai batean, egia, baina orain ez dut aparteko ezer izateko hantusterik. Emakume batek bost alaba nagusi dituenean utzi egin beharko lioke bere edertasunaz pentsatzeari». «Halakoetan, emakumearen edertasuna ez da izaten zertan pentsa emateko bezainbestekoa». «Dena dela, maitea: Bingley jauna auzotegira datorrenean bere etxera joan eta bisita egin beharko diozu, benetan». «Nire gain har dezakedana baino gehiago da hori, egiatan diotsut». «Baina har itzazu zure alabak kontutan. Pentsa ezazu bakar-bakarrik zer-nolako bizimaila emango liokeen horrek gure alabaren bati. Sir William eta Lady Lucasek erabakita dute harengana joatea, eta helburu horrekin soil-soilik, zeren, bestela, badakizu ez dutela etorri berriak bisitatzeko ohiturarik. Benetan joan beharra daukazu, zuk egiten ez baduzu, ezinezkoa izango baita guretzat Bingley jaunaren bisita joatea». «Lotsatiegia zara, dudarik gabe. Bingley jaunak poz handiz hartuko zaituztela ausartuko nintzateke esatera; gainera, zu bitartekari, lerro batzuk bidaliko dizkio, gure neskatoren bat ezkontzeko auke-

Parerik gabeko festak...!

Ukaezina da sanferminak festa bizia direla eta aldatuz doazela giza eskalan ere atzeman daitekeen abiaduran. Sanferminei hamarkada batzuen perspektibaz begiratzeko “gozamina” dugunok hautematen ahal ditugu aldaketa horiek, usadioetan, programatutako ekitaldien nolakotasunean, alderdi polemikoetan, kantiketan eta baita festa-jantzietan ere, zeinak sanferminetako gainerako “guzatzoen” kasuan nola, uste baino askoz ere aldakorragoak baitira.

1918ko sanferminak, esaterako, guztiz tokiko, soil eta xumeak izan ziren oraingoen aldean. Kultur ekitaldi nagusia, kasu, Sarasateren monumentuan lehen harria jartzekoa izan zen, orduan betetzen baitzen haren heriotzaren hamargarren urteurrena, eta festak iragartzeko kartela hemengo artista bati, Javier Cigari, esleitu zioten. “Barrakak” Aita Moret kaleak orain betetzen duen tokian paratu zituzten, eta zezen-feria besterik gabe iragan zen. Riau Riau bera ere, hainbestetan miran izandakoa, oieskeria galantatzat jotzen zen orduan, eta Francisco Javier Arraiza alkateak bando bat eman zuen hura ezin eztabaidatzeko eran debekatzeko, eta ikusleei agindu zien, arrakasta handirik gabe, espaloietan egoteko, kantatu gabe. Entzierroei dagokienez, tradizioz 06:00etan egiten baziren ere, kantuak dioen bezala, urte hartan 05:00etara igaro zituzten, eta azpimagarriena izan zen 10ean ondorio larririk gabe izandako giza pilaketa.

100 urteren ostean, sanferminak, egun, bat datoz gizartearen errealitatearekin. Parte hartzeko festak ditugu sanferminak: hamarna kolektibok eta elkartek esku hartzen dute haien diseinuan, eta festen osagarri ezagunenak, hala nola kartel iragartzailea eta Txupinazo-jaurtitzailea, herritarren zuzeneko bozketaz erabakitzen dira. Halako festak ezen den-denek baitute tokia, programaren ehunka ekitaldietan zehar, ordu ezberdin guztietan eta adin guztiei zuzendutako jardueretan: tradizioak, kultura, gastronomia, kirola, musika eta ikuskitzun mota oro, munduan eredu bilakatu den kale-giroaz blaiturik.

XXI. mendeko sanferminek aurre egin behar diete aldaketei eta beren erronkei, eta, zalantzarik gabe, denon ardura da festa anitz eta berdinzaleak modu positiboan eraikitzea. Halako festak non sanferminen benetako balioak azpimarratzen diren eta non eroso sentitzen diren bertakoak eta kanpokoak, txikiak eta handiak, gizonak eta emakumeak.

Eta orduan bai, aldarrikatuko dugu, Riau Riau zaharrak egin bezala, parerik gabeko festak direla, mundu osoan eta ezbairik gabe.

Joseba Asiron
Iruñeko Alkatea

Goizean goiz Artean eguzkia atera gabe, itsasoko gandu zuri batek ezkututzen zuen Crescent badia osoa. Atzeko mendiak, sasiz gainezka, erdi itoan zeuden. Ez zegoen antzematerik haiek non bukatzen ziren eta non hasten ziren larre eta baserriak. Joanak ziren errepide hondartsua eta bestaldeko larre eta baserriak; han ez zegoen duna zuririk belar gorrixkekin; ezerk ez zuen markatzen zer zen hondartza eta non zegoen itsasoa. Gogor erori zen ihintza. Belarra urdin zegoen. Tanta handiak zeuden sasietan zintzilik, erori gabe; kirten luzeen gainean zegoen erasana toi-toi iletsu, zilartsua, eta bustitasunak lurrera makurtuta zeuzkan lorategietako ebaki-belar eta krabelin guztiak. Blaituta zeuden fuksia hotzak, eta ihintz perla biribilak zeuden iturri-belarren hosto zapalen gainean. Bazirudien itsasoak eraso zuela goxo-goxo ilunpetan, olatu erraldoi bat etorri zela zeharka-zeharka... noraino? Gauaren erdian esnatuz gero, agian arrain handi bat ikusiko zenuen leihoan dardara egin eta ezkututzen... «Aaa!», aditzen zen itsaso logaletua. Eta sasietatik erreka txikien hotsa etorri zen, jarioan, bizkor, arin, harri leunen artetik irristan, garo-zokoetan bildu eta gainezkatuz; eta tanta handiak aditzen ziren hosto zabaletan plastaka, eta beste zerbait —zer ote zen?—, nahaste eta astintze xume bat, adaxka baten etetea eta ondoren halako isila, non bazirudien norbait entzuten zegoela. Crescent badiako ertzetik, arkaitz pila puskatuen artetik, artalde bat zetorren korrika txikian. Bil-bil eginda zeuden, artilezko mataza txiki bat mugimenduan, eta bizkor eragiten zieten hanka mehe makila antzekoei, hotzak eta isilak beldurtuta bezala. Atzetik artzain zakur zahar bat, hankak hareaz estalita blai, lasterka zebilen, muturra lurrari begira, baina axolagabe, beste zerbaitetan pentsatzen bezala. Orduan, arkaitz arteko atakan artzaina bera azaldu zen. Aitona ihar, tente bat zen, frisazko zamarra tanta ñimiñoz josia, panazko galtzak belaun azpian lotuta, eta kapelu zabalaren ertzean eskuzapi urdin bat tolestuta. Esku bat gerrikoan sartua, besteak makila leun hori eder bati eusten zion. Eta oinez zihoala, patxada onean, oso goxo eta bizi egiten zuen txistu, goibel eta xamur itxurako txirula hots urruna. Zakur zaharrak zilipurdi bat edo beste egin eta erne jarri zen, bere arinkeriaz lotsatuta, eta pauso serio batzuk eman zituen nagusiaren ondoan. Ardiak aurrera zihoazen, lasterka-saio zalapartatsutan; marruka hasi ziren eta multzo eta saldo fantasmek erantzun zieten itsas azpitik. «Bee! Bee!» Une batez leku berean jarraitzen zutela zirudien. Aurrean zabaltzen zen hareazko bidea putzu axalekin; alde bakoitzean sasi blaitu berdinak eta langa ospel berdinak ageri ziren. Orduan berealdikoa agertu zen: sekulako erraldoia, ile-tximak banatuta eta besoak zabal-zabal. Mrs. Stubbsen denda aurreko goma arbola handia zen, eta ondotik pasatzean eukalitu usain sendoa iritsi zitzaion. Eta orain argiune handi batzuek distiratzten zuten lainotan. Artzainak txistu egiteari utzi zion; sudur gorria eta bizar bustia mahuka bustian igurtzi eta, begiak kizkurtuta, itsaso aldera egin zuen so. Eguzkia irteten ari zen. Zoragarria izan zen lainoa zer bizkor saretu zen, alde egin zuen, desegin zen ordekan, sasiartetik gora piririkatu eta joan zen presaka, ihesi bezala; zurrunbilo eta kiribil handiak elkar bultzaka eta ukondoka zebiltzan, izpi zilartsuak nagusitu ahala. Urrutiko zerua —urdin argi, hutsa— islatzen zen putzuetan, eta tantek, telegrafo harietan igeri.

Dantzak eta pozak lagun, ongi pasa gau eta egun!

Dantzaren munduari programa honen hitzaurrea idazteko gonbit egitea bertakoaren aitortza da, eta aintzat hartzea folklorea bizirik iraunarazi eta urte osoan, bereziki festetan, folkloreak gozatzaren diren herritarrek. Iruña harro dago haren ondarearen barruan hainbeste dantza edukitzeaz, dantza biziak, ikustekoak eta parte hartzekoak. Ez daude-eta erakusleihen batean. Horregatik, bada, festetan dantzan aritzera gonbidatzen zaituztegu, hori baita biderik hoberena gozatzeko, harremanetan hasteko eta poza partekatzeko. Herri honek abestu eta dantzatu egiten du Pirinioez bi aldeetan, Voltairek gutaz zioen bezala. Eta horren isla dugu dantzek zenbat ekitalditan izan duten tokia betidanik Iruña zaharrean, eta programa honetan ere.

1978ko uztailaren 2an, duela berrogei urte, dantzek bete egin zuten zezen-plaza, inoiz gainditu ez den Dantzariaren egun handienaren kariatara. Plaza lepo zegoen sanferminen aurreko giro hobeezinaz blai. Festa eta dantza, beti elkarrekin. Zorritzarrez, gutxitan bete zen plaza uztail hartan, festek amaiera tragikoa eduki baitzuten, ahaztu ezin ditugun —eta are gutxiago urteurren honetan— gertaerak tarteko. Dantza festa da, eta festa dantza da. Ez dago dantzarik gabeko festa-egunik. Programa ofizialaren barruan eta kanpoan. Dantza sozialak, erritualak, erlijiosoak, paganoak, banakakoak, kolektiboak, gudakoak, bakekoak, zirkuluan eta ilaran dantzatzekoak, protokolokoak, herrikoiak... Dantza guztiak.

Sanferminak, parerik gabeko festak. Hala izan dadin, gureaz, bertakoaz, gozatu behar dugu, hemengo jendeak harrotzen dituenaz, eta hori bisitan datozenekin partekatu. Hori da gure altxorra. Dantzak, ilusio eta maitasunen lekuko, elkartu egiten gaitu, eta bikoteka batu, are gehiago festaren erdian. Abiapuntua da maitasun-historietarako, eta horien baieztapen. Norbera maitatzea da, eta bikotekidea, taldea, gainerakoak...; sozializatu egiten du, desinhibitu eta, are, eztabaidak alboratu eta hizkuntza-aldeak gainditu ere. Poza dakar, eta ezbeharrak ahantzarazi. Xarma berezia dauka.

Gozatu eta dantza egin dezagun, eta gure dantzek jarrai dezatela izaten harrotzeko zio eta identitate-zeinu. Bete ditzagun Iruñeko kaleak eta plazak gure dantzekin: jotak, porrusaldak, zortzi-koak, ingurutxoak, ttun-ttunak, jauziak, sokadantzak, balsak, mutildantzak, jolas-dantzak, fandangoak, arin-arinak... Esaera zahar batek dio “Dantzatzen duen herria ez da inoiz hilko”. Hortaz, dantza-ra! Dantza eginez ez baita inoiz hilko ez herri hau, ez festa hau.

Dantza tradizionalaren izenean, festa on pasa, alaiki eta bakean. Gurea, gure kultura eta hizkuntza maitatzetik abiatuta. Kultura eta pertsona guztiekiko begirune eta jarrera irekitik. Berdintasunetik eta dibertsitatetik, eta munduko bidegabekeriak ahaztu gabe. Dantzak eta pozak lagun, ongi pasa gau eta egun! Gora Gure Dantzak. Gora Iruñeko jaiak.

Jockeya jantokiko atera agertu, lipar batez han egon ondoren barrura sartu eta bazter batean jarri zen geldia, paretaren kontra bizkarra. Beteta zegoen gela, denboraldiko hirugarren eguna baitzen, eta jendez mukuru zeuden hiriko hotel guztiak ere. Jantokian abuztuko arrosa sorta batzuek hostoak erortzen utzi zituzten zamau zurien gainean eta aldameneko tabernatik ahots patarrez marrantatuen doinua iristen zen. Jockeya zain zegoen, bizkarra paretaren kontra, begi zirrikituekin jantokia arakatzen. Gela osoari erreparatu zion, azkenean soa izkinako mahaibatera iritsi zen arte, han eserita zeuden hiru gizonengana. Begiratzerakoan, jockeyak kokotsa goratu eta albo batera okertu zuen burua; zurrundu egin zitzaion gorputz txikia eta estutu eskuak, burdinazko kakoen moduko atzamarrak. Halaxe behatu eta itxaron zuen, jantokiko paretaren kontra tenkaturik. Txinako seta berdez egindako traje neurrira josia zeraman arratsalde hartan, haur batentzako mozorroaren tamainakoa. Beilegia zen alkandora, pastel koloreko marraduna gorbata. Kapelu gabe zihoan, busti eta tente orraztuta zeuzkan adatsak kopeta gainean. Iharra zuen aurpegia, adinik gabea, grisa. Lokien hutsuneetan itzalak eta ezpainetan irribarre uzkuratua. Handik tarte batera, oharturik zelatatzen zituen hiru gizonetako batek ikusi zuela, ez zuen buruaz agurtu, kokotsa gehiago goratu besterik ez, esku tenkatuko hatz lodia jakaren patrikan kakotzeaz batera. Izkinako mahaiko hiru gizonak ziren: entrenatzailea, apustu artekaria eta aberaskilo bat. Entrenatzailea Sylvester zen; kankailua, baldarra, sudur gorria eta begi motel urdinak. Apustuak bideratzen zituen, Simmons. Eta aberaskiloak zaldi bat zeukan Seltzer izenekoa, jockeyak arratsalde hartako lasterketan korriarazia. Whiskia sodarekin edaten ari ziren hirurak zuriz jantzita ko zerbitzari batek afariko plater nagusia ekarri berri zuenean. Sylvester izan zen jockeya ikusten lehena. Berehala beste alde batera behatu, whisky basoa utzi eta sudur gorriaren punta igurtzi zuen urduri. — Bitsy Barlow dago hor — esan zuen —, gelaren beste muturrean. Begira daukagu. — Hara! Jockeya — esan zuen aberaskiloak; horma alderantz zegoenez, buelta erdia eman zuen gibelera so egiteko—. Esaiozu etortzeko. — Ez, jainkoarren — esan zuen Sylvesterrek. — Erotuta dago — esan zuen Simmonsek. Lehorra zen artekariarena ahotsa, inflexio gabea; jokalaria porrokatuaren aurpegia zeukan, beldurra eta diru-gosea, bi horien artean oreka etengabea zuhurki moldatutako espresioa. — Ba nik ez nuke halakorik esango — adierazi zuen Sylvesterrek—. Aspalditik ezagutzen dut, Primeran zegoen orain dela sei hilabete arte. Baina horrela segitzen baldin badu, iruditzen zait ez duela beste denboraldi bat iraungo. Ez dut uste. — Miamin gertatu zenarengatik da — esan zuen Simmonsek. — Zer? — galdetu zuen aberaskiloak. Sylvesterrek begi kolpe batez jockeya ikusi zuen berriro gelaren bestaldean, ezpain ertzak busti zituen mingain gorri eta mamitsuarekin. — Istripu bat. Mutil batek min hartu zuen pistan. Zango bat eta aldaka apurtu zituen. Bitsyren lagun-mina zen. Irlandar bat. Ez zen jockey txarra, hura ere. — Lastima — esan zuen aberaskiloak. — Bai, lagun hurkoa zen — esan zuen Sylvesterrek—. Hotelean Bitsyren gelan egoten zen beti. Karta jokoan edo besteia lurrean etzanda kirol albisteak elkarrekin irakurtzen. — Tira, horrelakoak ere gertatzen dira — esan zuen aberaskiloak. Simmons txuleta

6, Ostirala Txupinazoa

12:00 Txupinazoa. Udaletxea. Pantaila erraldoien bidez emanen da Antoniutti parkean, Sarasate pasealekuan, Karlos III.aren etorbidean, Gazteluko plazan eta Foruen plazan. Musika kalean. Irteera Antoniuttitik Udaletxe plazatik eta Sarasate pasealekutik.	18:30 Burtzien zezenketa. Zezen-plaza. 19:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. DJ Oihan Vega. 20:50 arte. 20:00 San Ferminen Bezpera Nagusiak. San Fermin kapera (San Lorentzo eliza). Iruñeko Katedraleko Musika Kaperak eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoak Mariano Garcíaren eta Fernando Remacharen Bezpera tradizionalak interpretatuko dituzte. Zuzendaria: Katedraleko kapera-maisua. Txotxongiloak. Askatasun plaza. <i>El fantasma de la hostería txotxongilo</i> -antzerkia (gaztelaniaz). La Otra konpainia. Kontzertua. Compañía plaza. Irigoyen, Arcilla, Mingot & Urriza Quartet – Sing & Play Jobim. 20.30 Musika kalean. Karlos III.aren etorb. (Entzierroaren monumentua). 21:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. Antzerkia kalean. Karlos III.aren etorb. <i>Encierro infantil</i> . El Torico Compañía (Errioxa-Nafarroa). 21:45 Zezensuzkoa. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.	23:00 Sanferminetako Su Artifizialen Nazioarteko XIX. Egile Lehiaketa. Ziadadela. <i>Majo</i> . Diseinugilea: María José Bárbara Zamorano. Suetxea: Caballer Fx & Service, SL (Valentzia). 23:30 Kontzertua. Foruen plaza. 23:30, Los Caligaris. 00:30, La Pegatina. Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Sylene orkestra. 01:30 arte. Kontzertua. Gazteluko plaza. Puro Relajo. 23:45 Kontzertua. Compañía plaza. Jean Toussaint Quartet. 24:00 Musika kalean. Irteera Udaletxe plazatik.
---	---	---

AMONA PARRANDAN ipuina ezkutuan dago
Flannery O’Connorren **JENDE ONA NEKEZ DA**
AURKITZEN obran (1955)

Amonak ez zuen Floridara joan nahi. Zera nahi zuen, Tennessee ekialderantz bere familia ikustera joan, eta eginahalak eta bi egiten ari zen Baileyren erabakia aldatzeko. Bailey bere semea zen, izan zuen bakarra, eta haren etxean bizi zen. Mahaiaren aurrean zegoen Bailey eserita, aulki punttan, Journal-eko kirol orrialde laranjetatik zintzilik. «Adi ezak, Bailey, irakurri hau» bota zuen amonak. Amona zutik zegoen semearen ondoan, esku bat gerri ahulean itsatsia eta besteaz papera ximurtuz egunkaria semearen burusoileraino altxatzen ari zen. «Entzun ezak hau, Bailey; bere buruari «desorekatua» goitizenez deitzen dion tipo horrek kartzela federaletik ihes egin omen dik eta Floridarantz omen zieko irakurri ezak bestela eta ikusiko duk zer egin dien gizajo horiei; nik ez nitizkek semeak eramango halako erailea asean eta betean dabilen lekura. Nola eduki, ba, neure barrena lasai!». Baileyk, burua ere jaso gabe bira-erdi egin zuen haurren amarengana; galtza luzeko emazte gaztea zen, ilargi baten antzeko aurpegi ttattar eta borobila bufanda berde batez inguratua, puntak koneju-belarri bi ziruditela. Sofan ezarrita zegoenkatilu bat eskutan, besoetako haurrari albarikoke zukua ematen. «Inondik inora haurrak izanak dira Floridan, jarraitzen zen amonana; hobe litzateke orain beste norabait eramatea, gutxienez aldatu egingo lukete, zera. Bazter berriak ikusi eta burua pixka bat argituko lukete. Tennessee aldera, eguzkialdera, ez dira egundaino joan». Amak entzuten ez zuenarena egin zuen John Wesley ordea, pottolo, gafadun eta zortzi urteko mutil koskor hark «Floridara joan nahi ez baduzu, zergatik ez zara etxean gelditzen?» esan zion. Lurrean exerita zegoen, June Star bere arreba gaztearekin batera komikiak irakurtzen. — Bai zera; ezta munduko urrearen truke ere amona ez litzateke etxean geldituko, esan zuen June Starrek bere buru zurigorria altxatu gabe. — A, bai e? eta zer egingo huke hik Desorekatuak harrapatuko bahindu? galdetu zion amonak. — Nik belarrondoko bat eman, esan zuen John Wesleyk. — Milioi bat dolar emanda ere, ez genuke amona etxean utziko, esan zuen June Starrek. Noranahi goazelarik goazela, bera ere etorri egin behar du. Ezta kanoiarekin botako bagenio ere ez luke bere lekua hutsik utziko. — Ondo zegon, ttikitto! esan zuen amonak. Go-goan edukiko dinat, bai, ileak kizkurtzeko eskatuko dian hurrengorako. Ileak berrez kizkurtzen zitzaizkiola, eraso zuen June Starrek. Biharamun goizean, amona lehena zen automobilean joateko prest. Bazter batean ezarria zeukan bere poltsa, hipopotamo buruaren antzeko fardeltzar bat, eta horren azpian Pitty Sing, bere katua gorderik zeukan otarrea ezkutaturik zeraman. Nola demontre egongo zen katua hiru egunez etxean bakar bakarrik! A, zenbat aspertu beharko zen bera gabe! eta gainera, beldur zen gaseko erregailuren batean igurtzi eta ez ote zen ittoko. Katu bat eramanez Motel batean sartzea Baileyri gustatzen ez berriz. Amona atzealdean zegoen eserita, Wesley eta June Star alboan zituela, Bailey eta haurren ama aurrealdean, besotako haurrarekin. Bederatzia laurden gutxitan irten ziren, automobilaren kontagailuak 55.890 mila adierazten zituela. Zifra hauek idatzi egin zituen amonak; garrantzizkoa izango zen zenbat mila ibiliko ziren kalkulatzeko eta. Hogeita bost minutu behar izan zuten Atlantako hiriaren bazterretaraino irteteko. Patxada-patxadan ezarri zen andere zaharra, bere algodoizko

7, Larunbata San Fermin!

06:45

Dianak. Kale Berritik abiatuta.

07:00

Zaldi-aziendaren feria. Agustindarren industrial-dea. 15:00ak arte.

08:00

Zezen-entzierroa. Festetako lehena.

09:30

Erraldoiak eta Buruhan-diak. Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

10:00

San Ferminen prozesioa. Udalbatzak Kabildoa jasoko du eta San Fermin kapera-ra abiatuko da. Santuaren ohorezko Meza Nagusia. Iruñeko Artzapezpikua eta Katedraleko Kabildoa buru egongo dira, eta Katedraleko Musika Kapera, Iruñeko Orfeoia eta orkestra arituko dira. Zuzendaria: Katedraleko kapera-maisua.

11:00

Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.

11:30

Hauek festak hauek! Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

Birjolastu. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

12:00

Musika kalean. Irteera San Nikolas kaletik, Descalzos kaletik eta Labrit frontoitik.

17:30

Plazako zaldunen, mandakoen eta musika-bandaren desfilea. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.

18:00

Hauek festak hauek! Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 20:00ak arte.

Birjolastu. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte.

Musika kalean. Jota-erronda. Udaletxe plaza.

18:30

Zezen-feriaren lehen zezenketa. Zezen-plaza.

19:00

Dantzaldia. Gazteluko plaza. La Mundial orkestra. 20:50 arte.

Haurrendako emanaldia. Sarasate pasealekua. *Txirinbolo.* Gari, Montxo eta Joselontxo konpainia. 20:00ak arte.

20:00

Dantzaldia. Gurutzeko plaza. La Nube orkestra. 22:00ak arte.

Gazte eremua. Foruen plaza. Musika, DJak, karaokea eta beste zenbait jarduera. Inaugurazioa: Bollywood eta Holy Festa. 12 - 17 urte.

Txotxongiloak. Askatasun plaza. *Gorgorito y la Bella Durmiente* (gaztelaniaz). Maese Villarejoren txotxongiloak.

Kontzertua. Compañía plaza. Alberto Arteta, Laurok.

21:00

Dantzaldia. Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.

Antzerkia kalean. Karlos III.aren etorb. *Space*, Brotons konpainia (Cádiz).

21:45

Zezensuzkoa. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

Sanferminetako Su Artifizialen Nazioarteko XIX. Egile Lehiaketa. Ziadadela. *Sharp step.* Diseinugilea: Matthieu Morel. Su-etxea: Pandora Pyrotechnie (Saint-Jean-la-Vetre, Frantzia).

23:30

Kontzertua. Foruen plaza. 23:30, Nathy Peluso. 00:50, Iseo & Dodosound with The Mousehunters.

Dantzaldia. Gurutzeko plaza. La Nube orkestra. 01:30 arte.

Dantzaldia. Gazteluko plaza. La Mundial orkestra. 02:30 arte.

23:45

Kontzertua. Compañía plaza. Clarence Milton Bekker.

Julieta goxodendara propio etorri zitzaidan, lore-sortaren zozketa baino lehenago kafeterena egingo zutela esatera; ikusiak zituela berak: politik oso, zuriak, laranja pintatu batez, bitan ebakia eta atalak bistan zituen. Nik ez nuen dantzara joateko gogorik, ezta ateratzeko ere, eguna goxoak saltzen eman bainuen, eta hainbeste urrezko kordel estutu eta hainbeste korapilo eta txibista egitearen egitez behatz puntak minberak neuzkan. Eta Julieta ondo ezagutzen nuelako, aski baitzitzaion hari hiru orduko loa, eta berdin zitzaion lo egin edo ez egin. Baina nahitaez lagundu behar izan nuen, halakoa izaki ni, norbaitek zerbait eskatu eta ezetz esan beharra ezin bainuen sufritu. Zuriz nindoan oinetatik bururaino soinekoa eta azpiko gona biak almidoiztatuak, oinetakoek esne txurrut bat iduri, belarritakoak esmalte zuriko, eskumuturrean hiru aro belarritakoen tanke-rari zegozkionak eta poltsa zuri bat, Julietaren ustez hulezkoa, krisketa urrezko maskor antzekoa zuena. Plazara iristerako musika hasia zen. Sabaia kolore guztietako lore eta paperez zegoen apaindua: paperezko zintzilikario bat, lorezko zintzilikario bat. Lore batzuek argia zuten barruan eta sabaiak ahuspez jarritako aterki bat zirudien, zintzilikarioen muturrak erdialdean baino gorago baitzeuden loturik. Azpiko gonaren gerriko gomak, kateorrazak aurrera egin nahi ez zuelako pasatzeak hainbeste lan eman zidanak, botoi ttipi eta harizko xilderi batez loturik, estutu egiten ninduen. Gerrian arrasto gorri bat nuen ordurako. Noizean behin arnasa sakonki hartzen nuen, goma zabaltzearren, baina haizea ahotik atera ahala han nuen berriro gomaren martirioa. Musikarien oholtzak luma-landareak zituen hesi moduan buelta osoan, eta luma landarea bera paperezko lorez zegoen apainduta eta alanbre mehez loturik. Musikariak izerditan eta mahukutsik zeuden. Ama aspaldian nuen hila, beraz ezin niri lagundu eta aita beste batekin berrezkondua zegoen. Aita beste batekin ezkondua eta nik zer nahi hura emateko bizi zen amarik gabe. Eta aita ezkonduta eta ni gaztetxo eta bakarrik Diamantearen Enparantzan, kafeterak noiz zozketatuko zain, eta Julieta bere ahotsak musikari gaina har ziezaion oihuka: kontuz, ez hadi eseri, soinekoa ximurtuko dun eta!, eta begien aurrean bonbilak lorez apainduak eta lorezko xingolak irinez itsatsiak eta mundu guztia kontentu, eta horrela ilargian nengoe-la, ahots batek xuxurlaka: — Dantza egingo al dinagu? Ia oharkabea, ez nekielea erantzun nion eta beste alderantz jiratu nintzen. Aurpegi batekin egin nuen topo, hain gertu zegoen non zer itxura zuen ezin nion ondo ikusi, baina mutil aurpegia zen. Ez din axolarik, esan zidan, ni oso ona naun horretan eta erakutsiko dinat. Pere gizarajoa etorri zitzaidan burura, ordu haietan Colon-go sotoan sartuta sukalde lanetan mantal zuriarekin baitzegoen, eta zer bururatuko eta esaten diot: — Eta nire senargaiak jakiten badu? Gazte hura are hurrerago jarri zitzaidan eta barrez esaten dit: — Horren gaztetxoa eta senargaia dagoeneko? Eta barre egitean ezpainak luzatu eta hortz guztiak agerian jarri zitzaizkion. Tximino begiak zituen eta alkandora zuri marra urdinduna zeraman, maukak bildurik ukalondoen parean eta lepoko botoia askatua. Eta mutil hark bat-batean bizkar eman zidan eta hanka puntan jarrita mugitu zen batera eta bestera eta nigana itzuli zen berriro eta esan zidan, barkatu, eta hasi zen oihuka! Aizue!... nire jaka

06:45 Dianak. Zapateria kaletik abiatuta. 08:00 Zezen-entzierroa. Festetako bigarrena. 09:30 Erraldoiak eta Buruhan-diak. Konpartsaren irteera Autobus-geltokitik. 11:00 Jauzien jaia. Gazteluko plaza. Luzaide eta Baxenafarreko jauziak. Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gun e berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte. 11:30 Hauek festak hauek! Aska-tasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00 arte. Birjolastu. Taconera. Lar-raina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte. 12:00 Musika kalean. Irteera San Gregorio kaletik, Labrit frontoitik, Descalzos kaletik eta Udaletxe plazatik. Jota-kantaldia. Sarasate pasealekua. Roberto Urrutia eta Corrientes Navarras. Herri-kirolak. Foruen plaza. Nafarroako Aizkolarien binakako Txapelketa. Nafarroako Gurdi-jasotzaileen Txapelketa. Inaxio Perurena harri-jasotzailearen erakustaldia.	13:00 Musika-bandak. Gurutzeko plaza. Orchestre d'harmonie La Nèhe. Dax (Frantzia). 17:30 Plazako zaldunen, mandakoen eta musika-bandaren desfilea. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino. 18:00 Hauek festak hauek! Aska-tasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte. Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gun e berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 20:00ak arte. Birjolastu. Taconera. Lar-raina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte. Musika kalean. Udaletxe plaza. 18:30 Zezen-feriaren bigarren zezenketa. Zezen-plaza. 19:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Valparaiso orkestra. 20:50 arte. Dantzak. Sarasate pasealekua. <i>Ibai Ega</i> (Lizarra). 20:00ak arte. 20:00 Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Petanca orkestra. 22:00ak arte. Txotxongiloak. Askatasun plaza. <i>Gorgorito con el Ratoncito Pérez</i> (gaztelaniaz). Maese Villarejoren txotxongiloak.	Gazte eremua. Foruen plaza. Musika, DJak, master class eta beste zenbait jarduera. 12 – 17 urte. Kontzertua. Compañía plaza. Susana Sheiman Quintet. 21:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. Antzerkia kalean. Karlos III.aren etorb. <i>Circo Mágico</i>, Brotons konpainia (Cádiz). 21:45 Zezensuzkoa. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria. 23:00 Sanferminetako Su Artifizialen Nazioarteko XIX. Egile Lehiaketa. Ziadadela. <i>Pasión Navarra</i>. Diseinugilea: Eduardo Moreno Cuitavi. Su-etxea: FDS Diseño de espectáculos pirotécnicos (Valentzia). 23:30 Kontzertua. Foruen plaza. 23:30, Jupiter Jon. 00:40, Berri Txarrak. Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Petanca orkestra. 01:30 arte. Dantzaldia. Gazteluko plaza. Valparaiso orkestra. 02:30 arte. 23:45 Kontzertua. Compañía plaza. Carmen París (<i>En Síntesis</i>). 24:00 Musika kalean. Irteera San Nikolas kaletik.
---	---	--

EZAREN ZER ZATI EZ DUZU ULERTU? ipuina ezkutuan dago
Alice Munroeren **ETSAIAK, LAGUNAK, EZKONGAIAK, MAITALEAK, SENAR-EMAZTEAK** obran (2001)

Duela zenbait urte, trenak oraindik bigarren mailako hainbat bide-adarreratik ibiltzeri zirenean, bekoki oreztatsu eta ile kizkur gorriko emakume bat sartu zen tren-geltokira, eta altzariak bidaltzerik ba ote zegoen galdetu zuen. Geltokiko langilea emakumeak limurtzen saiatzen zen maiz, halakorik eskertzeko itxura zuten zatartsuak bereziki. —Altzariak?— esan zuen, inork lehenago halako burutaziorik izan ez balu bezala—. Bai. Tira. Zer altzari moraz ari gara? —Jangelako mahai bat eta sei aulki. Logela bateko altzari sorta osoa, sofa bat, sofa aurreko mahaia, txokorako mahaiñoak, zutikako lanpara bat. Arasa bat eta ontzitegi bat ere bai. —Arraioa! Etxe oso bat da hori. —Ez nuke hainbeste esango —erantzun zuen emakumeak—. Ez dago sukaldeko zerik; logela bate-rako adinakoa baina ez. Emakumearen hortzak ahoraren aurrealdean pilaturik ageri ziren, liskarrerako prest baleude bezala. —Kamioia beharko duzu —esan zuen gizonak. —Ez. Trenez bidali nahi ditut. Mendebaldera eramatekoak dira, Saskatchewanera. Ozenki mintzo zitzaion, gizona gorra edo ergela balitz bezala, eta bazegoen zerbait ha-ren ahoskatzeko moduan. Azenturen bat. Gizonari nederlandera etorri zitzaion buru-ra —holandar asko ari ziren iristen inguru hartara—, baina emakume hark et zuen holandar emakumeen mardultasuna, ezta haien azal arrosa polita edo ile horaila ere. Berrogeitik behera izango zituen, baina gutxi axola zuen horrek. Ezin esan edertasuna-ren erregina bat zenik. Harira jo zuen. —Lehenengo, kamioia beharko duzu, altzariak dauken tokitik hona ekartzeko. Eta begiratu beharko genuke ea Saskatchewaneko herri horretatik trena pasatzen den. Bestela, nola edo hala moldatu beharko zenuke baten bat altzarien bila joateko; Reginara, adibidez. —Gdynia da herria— esan zuen emakumeak—. Pasatzen da trena. Gizonak azal koipetsuko helbidetegi bat hartu zuen itze batetik, eta izena letrelatzeko eskatu zion. Emakumeak bere poltsatik paper zati bat atera, eta lokarri batez zintzilik zegoen arkatza hartura, izena idatzi zuen: G D Y N I A. —Zer izen mota ote da ori? Ez zekiela erantzun zuen emakumeak. Gizonak arkatza beretu zuen, eta trenbideen lineak aztertzen hasi zen. —Badira hor zehar leku mordo bat txekiarrez, hungariarrez eta ukrainarrez beteak— esan zuen. Bota orduko, emaku-mea haietariko bat izan zitekeela otu zitzaion. Eta hala ere, zer errealitate bat adierazi baino ez zuen egin. —Hemen da. Bai horixe, trenaren bidean dago. —Bai... —esan zuen emakumeak—. Ostiralean bidali nahi ditut. Ahal izango duzue? —Bidali bidali ditzakegu, baina ezin dizut ziurtatu zer egunetan iritsiko diren —erantzun zuen gizonak—. Lehentasunen arabera. Egongo al da inor zain, iristen direnean? —Bai. —Tren misto bat da. Ostiralean, arratsaldeko ordu biak eta hemezortzian. Kamioia ostiral goi-zean pasatuko da altzarien bila. Herrian bizi zara? Baiezkoa egin zuen emakumeak, eta helbidea idatzi zuen. 106 Exhibition Road. Denbora gutxi zen etxeei zenbakia jarria zietela herrian, eta gizonak, Exhibition Road non zen bazekien arren, ezin zuen toki ze-hatz hura kokatu. Emakumeak une hartan McCauley izena aipatu izan balu, interesa piztuko zitzaion beharbada gizonari eta beste modu batean gertatuko zen dena. Etxe berriak zeuden han, gerraostean eraikiak, nahiz eta jendeak “gerra-garaiko etxeak” es-aten zien. Heietariko bat izango zela pentsatu zuen. —Altzarien bila etortzen zaizki-zunean ordaindu behar duzu —esan zion. —Bidaia-txartel bat ere nahi dut, niretzat tren berean. Ostiral arratsaldean. —Leku berera? —Bai. —Torontoraino tren berean joan zaitezke, baina han Transkontinentalaren zain geratu beharko duzu; gaueko ham-

9, Astelehena

Baionaren eta Hiri Senidetuen Eguna

06:45 Dianak. Merkatuko kaletik eta Zezen-plazatik abiatuta.	17:30 Zaldunen, mandakoen eta musika-bandaren desfilea. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.	Kontzertua. Compañía plaza. Broken Brothers Brass Band.
08:00 Zezen-entzierroa. Festetako hirugarrena.	18:00 Hauek festak hauek! Aska-tasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.	21:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.
09:30 Erraldoiak eta Buruhan-diak. Konpartsaren irteera Autobus-geltokitik.	Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 20:00ak arte.	Antzerkia kalean. Karlos III.aren etorb. <i>La dama de trapos</i> , Alas de Circo konpainia (Kordoba).
11:00 Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.	Birjolastu. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte.	21:45 Zezensuzkoa. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.
11:30 Hauek festak hauek! Aska-tasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.	Musika kalean. Udaletxe plaza.	23:00 Sanferminetako Su Artifizialen Nazioarteko XIX. Egile Lehiaketa. Ziadadela. <i>Roma che bruchia</i> . Diseinugilea: Vincenzo Martarello. Su-etxea: Martarello SRL, (Arquà Polesino, Rovigo, Italia).
12:00 Musika kalean. Udaletxe plazatik abiatuta.	18:30 Zezen-feriaren hirugarren zezenketa. Zezen-plaza.	Dantzaldia. Gazteluko plaza. Nueva Saturno orkestra. 02:30 arte.
Jota-kantaldia. Sarasate pasealekua. Voces del Ebro.	19:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Nueva Saturno orkestra. 20:50 arte.	23:30 Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Stylo orkestra. 01:30 arte.
Herri-kirolak. Foruen plaza. Nafarroako Trontzalarien Txapelketa (1. kategoria). Nafarroako Trontzalarien Txapelketa (emakumeak). Trontza- eta aizkora-erakustaldia altueran, Patxi Larretxearen eskutik. Trontza-proba (abiaduraz).	Bertso-saioa. Sarasate pasealekua. Bertsolariak: Eneko Lazkoz, Amets Arzallus, Xabi Maia eta Miren Amuriza. Aurkezlea: Fernando Anbustegi. 20:00ak arte.	Kontzertua. Foruen plaza. 23:30, The Offensive. 24:00, Skakeitan.
13:00 Musika-bandak. Gurutze-ko plaza. Harmonie Bayonnaise (Baiona, Frantzia).	Musika kalean. San Saturnino kaletik eta Estafeta kaletik abiatuta.	23:45 Kontzertua. Compañía plaza. Kenny Garret Quintet.
Txistularien Alardea. San Jose plaza. Txistularien 59. alarde-kontzertua. <i>Ama lur, eguzki eta ur.</i>	20:00 Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Stylo orkestra. 22:00ak arte.	24:00 Musika kalean. Irteera Estafeta kaletik eta Udaletxe plazatik.
	Txotxongiloak. Askatasun plaza. <i>Lagunekin baratzean</i> (euskaraz). Bihar Taldea.	
	Gazte eremua. Foruen plaza. Musika, DJak, karaoke, zunbalain eta beste zenbait jarduera. Emanaldia: Zunbalain + Dja. 12 – 17 urte.	

San Petersburgo, abenduaren 11, 17**. Biziki poztuko zara jakinik ezein hondak
menek ez diola jarraitu zuri halako susmo gaiztoa ematen zizun bidaia honen
hasierari. Atzo iritsi nintzen hona, eta lehenengo eginkizuna dut nire arreba mai-
teari ziutatzea onik nagoela eta areagotuz doala ekinbide honen arrakastan du-
dan konfiantza. Londrestik oso iparraldera nago dagoeneko, eta, Petersburgoko
kaleetan zehar nabilela, iparreko, haize kirri hotz bat nabari dut masailetan,
herbioak bizkortzen dizkidana eta atseginez betetzen nauena. Ulertzen al duzu
sentipen hori? Bidaia honetan jomuga ditudan eskualdeetatik heldu da haize
kirri hori, eta izotzezko klima haien kutsua dakarkit. Ametsak eta itxaropenak
bizi-bizi suaharten zaizkit haize adoregarri horrek akuilaturik. Alferrik saiatzen
naiz neure buruari sinestarazten izotzaren eta desolazioaren eoitza dela poloa
nire itudimenari beti agertzen zaio edertasunen eta atseginen eskualde baten
irudian. Han, Margaret maitea, beti ageri da eguskia: haren esfera zabalak in-
guru egiten dio zerumugari, eta betiereko distira bat ematen du. Han —zeren,
baimenaz, ene arreba, sineste apur bat emango baitiet gure aurretiko nabigatzai-
leei—, han, ez da ez elurrik ez izotzaldirik, eta, itsaso, barearen gainean, nabiga-
tuz, baliteke haizeak leunki eramatea gure ontzia, mundu bizigarrian gaurdaino
aurkituriko eskualde guztiek baino miragarri eta edertasun gehiago dituen lur
bateraino. Baliteke lur hartako zabaldi eta ikuskariak berdingabeak izatea, zeren,
ezbairik gabe, halakoxeak baitira zeruko gorputzen fenomenoak ere bakartegi
ezezagun haietan. Zer ezin liteke espero argi amaigabea duen herrialde batean?
Ausaz, han aurkituko dut iparrorratza erakartzen duen mirarizko indarra, eta
han doitu ahal izango ditut zeruan egin diren mila behaketa, zeinak bidaia hau
besterik ez baitute behar beren ustezko bitxikeriak koherente bihurtzeko betiko.
Nire jakin-min larria ase ahalko dut inork sekula bisitatu ez duen munduko parte
horren ikusmiran, eta baliteke ezein gizonek oinik ezarri ez duen lur bat ibiltzea
oinpean. Horra nire gogoaren pizgarriak aski dira heriotzaren edo arriskuen bel-
dur oro mendeen hartu eta pozarren abia nadin bidaia neketsu honetan; ume
bat bezala, oporretako lagunekin bateltxo batean sartu eta herriko ibaian gora
doanean aurkikuntza-espeditzioan. Demagun, ordea, faltsuak direla aburu horiek
guztiak; hala ere, ezin uka dezakezu onura ordainezina ekarriko diodala gizadi
guztiaari azken belaunaldiraino, baldin eta igarobide bat aurkitzen badut polotik
hurbil, gaur egun hainbat eta hainbat hilabeteko bidea behar duten herrialde
horietara heltzeko; edo baldin eta imanen sekretua agerrarazten badut, zeren
sekreto hori, inola agertzekotan, nire egiteko honen moduko batekin soilik ager-
tuko baita. Gogoeta horiek uxatu egin dute gutuna hastean nuen urduritasuna,
eta zeruetara goratzen nauen gogo bizi batez distiran dut bihotza. Izan ere, ezerk
ez du hala burua baretzen nola asmo sendo batek; alegia, arimak irudimena non
finka izateak. Espeditzio hau izan dut gazte-gaztetatik ametsik gogokoena. Hain-
bat bidaia-liburu irentsi ditut, Ipar Ozeano Barera poloaren inguruko itsasoetan
zehar iristeko asmoz egin diren espeditzioei buruzkoak. Gogoan izango duzu aur-
kikuntzako xedez egin diren bidaien historia bat besterik ez zela gure osaba Tho-
masen liburutegi guztia. Nire hezierari ez zitzaion arretarik jarri, baina, hala ere,

06:45 Dianak. Txapitela kaletik eta Zezen-plazatik abiatuta.	17:30 Plazako zaldunen, man- dakoen eta musika-ban- daren desfilea. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.	Kontzertua. Compañía plaza. Neurona Ta Erdi DJak – mundumusika.
08:00 Zezen-entzierroa. Festetako laugarrena.	18:00 Hauek festak hauek! Aska- tasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.	21:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.
09:30 Erraldoiak eta Buruhan- diak. Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).	Kirol Ari. Media Luna par- keko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 20:00ak arte.	Antzerkia kalean. Karlos III.aren etorb. <i>Osos del Pirineo</i>, Tutatis konpainia (Bartzelona).
11:00 Kirol Ari. Media Luna par- keko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.	Birjolastu. Taconera. La- rraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte.	21:45 Zezensuzkoa. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.
11:30 Hauek festak hauek! Aska- tasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.	18:30 Zezen-feriaren laugarren zezenketa. Zezen-plaza.	23:00 Sanferminetako Su Arti- fizialen Nazioarteko XIX. Egile Lehiaketa. Ziadadela. <i>Colores del Mediterráneo</i>. Di- seinugilea: Vicente Cervera Chuliá. Su-etxea: Pirotecnia Turís, SL (Turís, Valentzia).
12:00 Jota-kantaldia. Sarasate pasealekua. Voces Riberas.	19:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. La Pasarela orkestra. 20:50 arte.	23:30 Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Mediterránea orkestra. 01:30 arte.
Herri-kirolak. Foruen plaza. Nafarroako Ingude-jasotzai- leen Txapelketa. Motoze- rralarien XX. San Fermin Saria. Zama-jaurtitzailleen erakustaldia (gizonezkoak eta emakumezkoak).	Haurrendako antzerki mu- sikala. Sarasate pasealekua. Herriko festetan. Haurren- dako ikuskizuna: bertsoak, musika, magia eta antzer- kia, Potx eta Lotx pailazoan eskutik. 20:00ak arte.	Dantzaldia. Gazteluko plaza. La Pasarela orkestra. 02:30 arte.
Musika kalean. Karlos III.aren etorbidetik, Descal- zos kaletik eta Autobus-gel- toki zaharretik abiatuta.	20:00 Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Mediterránea orkestra. 22:00ak arte.	Kontzertua. Foruen plaza. 23:30 EME Dj.
13:00 Musika-bandak. Guru- tzeko plaza. Zizur Nagusiko Udal Banda.	Txotxongiloak. Askatasun plaza. <i>Kli kla birzikla</i> (euskaraz). Bihar Taldea.	23:45 Kontzertua. Compañía plaza. La Yegros.

Behin, urtetan sartuxea nintzela, gizon bat hurreratu zitzaidan edifizio publiko bateko hall-ean. Bere burua aurkeztu eta esan zidan: «Betidanik ezagutzen zaitut. Ederra omen zinen gaztetan, hala diote denek; nik, ordea, ederrago ikusten zaitut orain gaztetan baino eta hori esatera etorri natzaizu, askoz ere gustukoago dudala zure oraingo aurpegia, aurpegi hondatu hau, orduko neskato aurpegi hura baino». Askotan etortzen zait pentsamendura irudi hori, nik ez beste inork ikusten duena, eta sekula inori aipatu ez diodana. Hortxe dago beti, isiltasun berean, liluragarri. Horixe dut guztien artean neure buruaren irudi gustukoena, neure buruari antzematen diodanekoa, xoratzen jartzen nauena. Oso goiz izan zen beranduegi nire bizian. Hemezortzi urterekin beranduegi zen jada. Hemezortzi urtetik hogeita bosterako tarte horretan, ezusteko joera bat hartu zuen nire aurpegiak. Hemezortzi urterekin zahartu nintzen. Ez dakit denei berdin gertatzen zaien, sekula ez dut galdetu. Entzunda nagoela iruditzen zait nola, batzuetan, bizitzako urterik gazteenak, urte loriosenak pasatzen direnean, denborak halako bulkada bat ematen digun. Kolpetik gertatutako zaharkitzea izan zen. Ikusi nuen nola jabetzen zen banan-banan nire hazpegiez, nola aldatzen zuen beren arteko erlazioa, nola handitzen zizkidan begiak, nola bilakatzen zuen tristeago nire begirada, behin betikoago nire ahoa, nola markatzen zidan bekokia arrail sakonagoez. Izutu beharrean, irakurketa batek, esate baterako, nire baitan piztuko zuen interes berberaz jarraitu nion zaharkitze hari. Banekien gainera ez nenbilela oker, moteltzen hasiko zela halako batean prozesu hura eta bere onera etorriko zela. Hamazazpi urterekin ezagutu nindutenak, orduan joan bainintzen Frantziara, zur eta lur geratu ziren handik bi urtera, hemeretzi nituela, itzuli nintzenean. Aurpegi berri hura gorde dut. Hura izan da nire aurpegia. Zahartu da harrezkero, noski, baina ez behar zukeen bezainbeste. Urratua dut aurpegia, zimur idorrez bete, arraildua azala. Ez da desegin aurpegiera fin batzuen antzera, bere hartan diraute aurpegiko ertzek, baina suntsitua du materia. Aurpegi suntsitua da nirea. Berririo esango dizuet, hamabost urte t'erdia ditut. Transbordadore bat Mekong ibaian barna. Ibaia alderik alde zeharkatu arte dirau irudiak. Hamabost urte t'erdia ditut, herri hartan ez dago sasoirik, sasoi bakarra dugu, beroa, monotonoa, lurreko eremu bero eta luzean gaude, ez udaberririk, ez berrikuntzarik. Estatuaren barnetegi batean nago, Saigonen. Hantxe egiten dut lo, barnetegi hartan, baita otorduak ere, baina klaseak hartzera kanpora joaten naiz, lizeo frantsesera. Nire amak, maistra bera, bigarren mailako ikasketak nahi ditu bere neska txikiarentzat. Bigarren mailako ikasketak beharko ditugu zuretzat. Amarentzat nahikoa izan zena ez da orain aski txikitxoarentzat. Bigarren mailako ikasketak, eta matematikako oposaketa on batzuk gero. Lelo berbera entzunda nago betidanik, eskolan egindako lehen urteetatik. Sekula ez zitzaidan burutik pasa matematikako oposaketei itzuri egiterik izango nuenik, geroko uztearekin ni kontent. Beti ikusi izan dut ama egunero bere seme-alaben etorkizuna antolatzen, baita berea ere. Egun batetik aurrera ez zen gehiago kapaz izan bere seme-alabentzako etorkizun handi-nahirik antolatzeko, eta bestelako etorkizunak antolatu zituen, gose eta miseria gorrikoak, antolaketa horiek ere beren funtzioa betetzen zutelarik.

11, Asteazkena

Haurren Eguna

06:45 Dianak. San Saturnino kaletik eta Zezen-plazatik abiatuta. 08:00 Zezen-entzierroa. Festetako bosgarrena. 09:30 Erraldoiak eta Buruhan-diak. Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia). 11:00 Haurren lore-eskaintza San Fermini. Aduanako zokoa. Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte. 11:30 Hauek festak hauek! Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte. Birjolastu. Taconera. Larraia parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte. 12:00 Haurren Dantza Jaialdia. Gazteluko plaza Jota-kantaldia. Sarasate pasealekua. Voces Navarras. Herri-kirolak. Foruen plaza. Nafarroako Aizkolarien Txapelketa (3. kategoria). Nafarroako Trontzalarien Txapelketa (kadeteak). Proba konbinatuen erakustaldia (kimuak). Musika kalean. Udaletxe plazatik abiatuta.	13:00 Musika-bandak. Gurutzeko plaza. Cascanteko Udal Musika Banda. 17:30 Plazako zaldunen, mandakoen eta musika-bandaren desfilea. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino. 18:00 Hauek festak hauek! Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte. Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 20:00ak arte. Birjolastu. Taconera. Larraia parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte. Musika kalean. Jota-erronda. Karlos III. aren etorb. 18:30 Zezen-feriaren bosgarren zezenketa. Zezen-plaza. 19:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Maremagnum orkestra. 20:50 arte. Dantzak. Sarasate pasealekua. <i>Oberena Dantza Taldea</i> (Iruña). 20:00ak arte. Musika kalean. Estafeta kaletik eta Descalzos kaletik abiatuta. 20:00 Txotxongiloak. Askatasun plaza. <i>En la tumba del Faraón Tutankamon</i> (gaztelaniaz). Maese Villarejoren txotxongiloak. Gazte eremua. Foruen plaza. Musika, DJak, arku-tiroa eta beste zenbait jarduera. #Goldendjs. 12 – 17 urte.	Kontzertua. Compañía plaza. Berriketan. Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Euro orkestra. 22:00ak arte. 21:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. Antzerkia kalean. Karlos III.aren etorb. <i>Rockolas</i>, Almozandia konpainia (Zaragoza). 21:45 Zezensuzkoa. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria. 23:00 Sanferminetako Su Artifizialen Nazioarteko XIX. Egile Lehiaketa. Zitudadela. <i>Blooming Fire</i>. Diseinugilea: Gunnar B. Knudsen. Su-etxea: Højen & Magic Fyrværkeri Aps (Holstebro, Danimarka). 23:30 Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Euro orkestra. 01:30 arte. Dantzaldia. Gazteluko plaza. Maremagnum orkestra. 02:30 arte. Kontzertua. Foruen plaza. 23:30, Rawan. 24:00, Lucy Paradise. 23:45 Kontzertua. Compañía plaza. Les Filles de Illighadad. 24:00 Musika kalean. Irteera Kale Nagusitik.
--	--	---

Gure bizitzaren bide erdian, oihan ilun baten aurkitu nintzen, eta han zuzeneko bidea eznuen ikusten. Ene, pentsamentuan bildurra berriztatzen duen baso basati lakar eta gogor hau zein zen esatea gauza gaitza da benetan. Hain mingotsa denez gero, heriotza bera dirudi, baina han ediren nuen ongiaren gainean mintzatzeagatik, gainerako beste gauza guztiak azalduko ditut. Nola sartu nintzen han esaten eztaikit, loak hainbesteragino hartu baininduen, zer egiazko bidetik aldaratu nintzen, baina bihotza ikaraz bete zidan haran hura amaitzen zen murura heldu nintzenean, gora begiratu nuen, eta bide guztietatik artez garamazkien planetaren printzekin jantzirik, bere gailurra ikusi nuen. Hain nekez pasatu nuen gauean bihotzaren aintziran egin zitzaidan izua niregandik joan zen apur baten, eta burrukaldi gogorraren ondoan itsasoko bazterrera irten duenak arriskuz beteriko uretara begiratzen duen bezala, oraindik ihesi zebilan nire kemena ere atzera itzuli zen, inoiz inok bizirik alienatu ezten lekua bir-ikustera. Gorputz nekatuak atsedena hartuta gero, plaia bakartitik abiatu nintzen eta zapaltzen nuen oina harean sartzen zitzaidan. Eta ondartzatik irtetear nengoenean, lehopardo arin lerdan larru-nabar bat agertu zitaidan: aurretik etzitzaidan inola kentzen, eta hainbeste ostopo iminten zidan bidean, zer aurrera egiten nuen bakoitzean atzera egin behar izan nuen. Goizalde hasi-berria zegoen eta Jainkoaren amorioak gauza eder guzti haik egin zituenean berekin zeuden izarrekin igoten zen eguzkia pisti larru-nabar haren aintzinean itxadon behar nion beraz egun berriaren giro ederrari; baina ez agertu zitzaidan lehoi batek bildurra eragin gabe. Honek zirudien nireganantza zetorrela kopet-altu eta izugarriro gose, eta aireak berak zirudien haren bildur. Eta lupu bat, bere argaltasunean grina oroz beterik, jente askoren hondamendia erakarri zuena. Eta haren itxuraren izuak eman zidan tristurak goiko esperantzak galdu arazi zizkidan. Eta aberastasunaren alaitasuna ahantzirik, bere ondasunak galtzen dituenak negar eta zinkurina egiten duen bezala, honela egiten zidan animalia gupida-gabe harek, nire kontra etorten, eguzkia, argitzen ezten lekurantza eramaten ninduela. Leizerantza hamiltzen nintzen artean, bat agertu zitzaidan, bere isiltasun luzeagatik mutu zirudiena. Ere mu haundian ikusi nuenean «Erruki hadi nitzaz». Garraisi egin nion. «Zer-nahi haizen, itzal edo gizon gertua». Erantzun zidan: «Gizona eznaiz, behin izan banintzen ere, eta nire gurasoak izan ziren lonbarditarrak, biak mantuatarrak. Berandu izan arren Julio-pean jaio nintzen, eta jainko faltsu eta atzipagarraren denboran Augusto onaren azpian bizi izan nintzen Erroman. Poeta izan nintzen, eta Ilion harroa erre ondoren Troiatik etorri zen Ankisen seme justu hura kantatu nuen. Baina hi, zergatik bihurten haiz neke haundi hontara? Alaitasun guztien hasiera eta amaia den mendira, zergatik ezaiz igoten? «Orduan haiz hi Virjilio, mintzairazko hain hibal haundia sortzen den iturria?», erantzun nion nik, kopet-apal. «Oh, beste poeta guztien ohore eta argia, hire idaz-lanak gozatu arazi zizkidaten ikaskuntza luzeak eta maitasun haundia balia bekizkit! Hi haiz maisu eta autore nirea; ohoratu nauen idaz-tankera hiregandik hartu nian nik. Ihes egiten diodan animalia ikus ezak. Harengandik libra hezak, zainak eta poltsua ikaratu arazten baitzikit». «Hiri», esan zidan negar egiten ikusi ninduenez

06:45 Dianak. Kale Berritik eta Zezen-plazatik abiatuta. 08:00 Zezen-entzierroa. Festetako seigarrena. 09:30 Erraldoiak eta Buruhan-diak. Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia). 11:00 Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte. 11:30 Hauek festak hauek! Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte. Birjolastu. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte. 12:00 Jota-kantaldia. Sarasate pasealekua. La Ribera Canta. Herri-kirolak. Foruen plaza. Sokatirako San Fermin 4 x 4 Txapelketa mistoa. Emakume aizkolarien erakustaldia. Kañamares anaien erakustaldia (taulak egitea eta enborrak aitzurraz moztea). Musika kalean. Irteera Descalzos kaletik eta San Frantzisko plazatik. 13:00 Musika-bandak. Gurutzeko plaza. Erriberriko Musika Banda.	17:30 Plazako zaldunen, mandakoen eta musika-bandaren desfilea. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino. 18:00 Hauek festak hauek! Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte. Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 20:00ak arte. Birjolastu. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte. Musika kalean. Txapitela kaletik abiatuta. 18:30 Zezen-feriaren seigarren zezenketa. Zezen-plaza. 19:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Krypton orkestra. 20:50 arte. Bertso-saioa. Sarasate pasealekua. <i>Ez da kasualitatea</i> bertso- eta musika-saioa. Bertsolariak: Alazne Untxalo, Alaia Martin, Miren Artetxe eta Saioa Alkaiza. Musikariak: Ixak Arruti eta Gari Otamendi. Aurkezlea: Alaitz Rekondo. 20:00ak arte. 20:00 Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Sugar Show orkestra. 22:00ak arte. Txotxongiloak. Askatasun plaza. <i>Gorgorito y los libros del colegio</i> (gaztelaniaz). Maese Villarejoren txotxongiloak.	Gazte eremua. Foruen plaza. Musika, DJak, ur-festa eta beste zenbait jarduera. Dj Andu. 12 – 17 urte. Kontzertua. Compañía plaza. Dj Jesús Bombín (Radio3 – Sonideros). 21:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. Antzerkia kalean. Karlos III.aren etorb. <i>The wolves</i>, La FAM konpainia (Castelló). 21:45 Zezensuzkoa. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria. 23:00 Sanferminetako Su Artifizialen Nazioarteko XIX. Egile Lehiaketa. <i>Ziudadela. Sabor andaluz.</i> Diseinugilea: Diego Salado Martín. Su-etxea: Pirotecnia Esteban Martín SL (Motril, Granada). 23:30 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Krypton orkestra. 02:30 arte. Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Sugar Show orkestra. 01:30 arte. Kontzertua. Foruen plaza. 23:30 Dj Txurru. 23:45 Kontzertua. Compañía plaza. Quantic (Live). 24:00 Musika kalean. Irteera Mu-seotik (San Domingo kalea).
---	--	--

Hildakoa eremu txiki batean agertu zen Las Flores kolonian. Mahuka luzeko elastiko zuria zeraman eta kolore horiko gona belaunetarainokoa, tamaina bat handiagoa. Eremuan jolasean ari ziren ume batzuek aurkitu zuten eta abisua eman zieten beren gurasoei. Haietako baten amak poliziari deitu zion, ordu erdi geroago agertu zena. Eremuak Peláez kalera eta Hermanos Chacón kalera ematen zuen eta gero erreten batean galtzen zen zeinaren atzean esnetegi abandonatu eta jada hondatu baten hormak goititzen baitziren. Ez zegoen inor kalean eta hortaz poliziek broma bat zela pentsatu zuten lehen batean. Hala ere patruila-autoa Peláez kalean gelditu zuten eta haietako bat eremuan barneratu zen. Handik gutxira buru estaliko bi emakume aurkitu zituen, sastraka artean belauz niko, otoitzean. Emakumeek, urrundik ikusita, zaharrak ziruditen, baina ez ziren zaharrak. Gorpua haren aurrean zetzan. Emakumeen jarduna eten gabe, polizia bere urratsen arrastoan itzuli zen, eta auto barruan erretzen zain zuen lagunari deitu zion, keinuak eginaz. Gero biak (haietako bat, jaitsi ez zena, pistola zorrotik aterata zuela) itzuli ziren emakumeak zeuden tokira eta zutik gelditu ziren haien ondoan, gorpuari arretaz begiratzuz. Pistola zorrotik aterea zuenak galdetu zien ea ezagutzen zuten. Ez, jauna, esan zuen emakumeetako batek. Ez genuen inoiz ikusi. Ume hori ez da hemengoa. 1993an gertatu zen hori. 1993ko urtarrilean, Hiltze hartatik aurrera hasi ziren kontatzen emakumeen hilketak. Baina baliteke lehenago beste batzuk gertatzea. Lehen hildakoak Esperanza Gómez Saldaña zuen izena eta hamahiru urte zituen. Baina baliteke lehen hila ez izatea. Erosotasunagatik agian, 1993an eraildako lehena izateagatik, bera da zerrendako burua. Nahiz eta ziur aski hilko ziren 1992an beste batzuk, Beste batzuk zerrendatik at gelditu zirenak edo inork inoiz aurkitu ez zituenak, desertuan hobi komunetan lurperatuak edo beren errautsak gauaren erdian barreiatuak izan zirelarik, ereiten duenak ere ez dakienean non, zein tokitan aurkitzen den. Esperanza Gómez Saldañaren nortasuna jakitea erraz samarra izan zen, Gorpua Santa Teresako hiru polizia-etxeetako batera eraman zuten lehenik, non epaile batek ikusi bait zuen eta beste polizia batzuek aztertu eta argazkiak atera. Handik tarte batera, polizia-etxearen aurrean anbulantzia bat zain zegoen bitartean, Pedro Negrete heldu zen, poliziaburua, atzean bi laguntzaile zituela, eta berriro aztertu zuen hildakoa. Bukatu zuenean epailearekin eta bulego batean zain zituen beste hiru poliziarekin bildu zen, eta galdetu zien ea zer ondoriotara iritsi ziren. Estrangulatu egin zuten, esan zuen epaileak, eguzki argia baino argiago dago. Poliziek baietsi besterik ez zuten egin. Ba al dakigu nor den?, galdetu zuen poliziaburuak. Denek ezetz esan zuten. Tira, jakingo dugu, esan zuen Pedro Negretek, eta epailearekin joan zen. Bere laguntzailea polizia-etxean gelditu zen eta eskatu zuen hildakoa aurkitu zuten bi poliziak ekartzeko. Patruilatzaera itzuli dira, esan zioten. Ba bueltan ekarri, aluok, esan zuen. Gero gorpua hiriko ospitaleko gorputegira eraman zuten, non auzitegiko medikuak autopsia egin baitzion. Autopsiaren arabera Esperanza Gómez Saldaña estrangulatua hil zen. Hematomak zituen kokotsean eta ezkerreko begian. Hematoma handiak zangoetan eta saihets hezurretan. Bortxatua izan zen baginatik eta uzkitik, behin baino gehiagotan ziur asko, bi

13, Ostirala

Zaharren Eguna

06:45 Dianak. Txapitela kaletik eta Zezen-plazatik abiatuta.	13:00 Musika-bandak. Gurutzeko plaza. Arangurengo Banda.	20:30 Musika-emanaldia. Gurutzeko plaza. Los reyes del Guateque. 22:00ak arte.
08:00 Zezen-entzierroa. Festetako zazpigarrena.	17:00 Musika kalean. Karlos III.aren etorb. (Entzierroaren monumentua).	21:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita. Antzerkia kalean. Karlos III.aren etorb. <i>Babios</i> , Los titiriteros de Binefar konpainia (Huesca).
09:30 Erraldoiak eta Buruhan-diak. Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).	17:30 Plazako zaldunen, mandakoen eta musika-bandaren desfilea. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.	21:45 Zezensuzkoa. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.
10:45 Zaharrendako meza. San Fermin kapera.	18:00 Hauek festak hauek! Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte. Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.	23:00 Sanferminetako Su Artifizialen Nazioarteko XIX. Egile Lehiaketa. Zitudela. <i>Red, White and BOOM!!</i> . Diseinugilea: Shannon Nicole Tyree. Su-etxea: Great Lakes Fireworks Llc. (Marine Eastpointe, Michigan, Estatu Batuak).
11:00 Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.	11:30 Hauek festak hauek! Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte. Birjolastu. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte. Musika kalean. Udaletxe plazatik abiatuta.	23:30 Dantzaldia. Gurutzeko plaza. Arkansas orkestra. 01:30 arte. Kontzertua. Foruen plaza. 23:30, Bad Gyal. 00:50, Talco. Dantzaldia. Gazteluko plaza. ABBA The new experience. ABBaren omena + Dj Pablito Mix. 02:30 arte.
12:00 Zaharren eguneko kontzertua. Jota-kantaldia. Sarasate pasealekua. Yoar eta Jus la Rocha errondailak.	18:30 Zezen-feriaren zazpigarren zezenketa. Zezen-plaza.	
12:00 Herri-kirolak. Foruen plaza. Nafarroako Harri-jasotzaileen Txapelketa. Zama-jasotze erakustaldia, Iñigo Goienetxeren eskutik. Motozerralarien erakustaldia (zurezko irudiak). Musika kalean. Irteera Descalzos kaletik.	19:00 Dantzaldia. Gazteluko plaza. Dj Pablito Mix. 20:50 arte. Dantzak. Sarasate pasealekua. Gure Txokoa (Bera). 20:00ak arte.	23:45 Kontzertua. Compañía plaza. Soleá Morente.
	20:00 Txotxongiloak. Askatasun plaza. <i>Adarbakar urdina</i> (euskaraz). Bihar Taldea. Gazte eremua. Foruen plaza. Musika, DJak, dantza latinoak eta beste zenbait jarduera. 12 – 17 urte. Kontzertua. Compañía plaza. Revolutionary Brothers live.	

Poliziak egunsentian eraso zuen. Hogei gizonek osaturiko eskoadra bat, erregularrak eta miliziano laguntzaileak, zakur eta fusil eta guzti, megafono baten aginduak deladarka emanen tanketa baten gainean zutik zihoan ofizial bat agintari zutela, errengaraz errengara igaro ziren denden klabijak atereaz, dendak lurrera-tuz, oihal artean zalapartaka zebiltzen konkorrak jo eta jo. Barraketara oldarrean sartu ziren eta lo zeudenak ohean bertan egurtu zituzten. Haien golpeak eskibatu ondoren hanka egitea lortu zuen, gizon gazte baten atzetik joan ziren, komunetan atzeko batetan inguratu zuten eta ostikoka zerraldo bota zuten. Zakur batek erait-si zuen mutiko txiki bat izuikaraz garraisi batetan aurkitu zuten, buruko larrazala urraturik eta odoletan blai. Erdi jantzirik, erreguka, negarrez edo beldurrak kikildurik, gizasemeak, emakumeak eta haurrak bultzaka eraman zituzten barraken aurrean hedatzen zen esparrura, eta han, esertzeko agindu zieten. Handik, zakurrek eta gizonek, armak tiratzeko prest zaintzen zituzten bitartean, ederki ikusi ahal izan zituzten beste gainerako poliziak matxinsalto-samalda baten gisa denden artean sakabanatzen, dendak lurrera botatzen, zegoen guztia kanpoan parrastaka zabaltzen, maletak eta kutxak husten, harik eta esparrua zaborrategi baten gisa geratu zen arte, dendarteak arropan, oheazalez, janariz, sukalde-tres-naz, ontziz, baxeraz eta garbiketarako gauzaz estalirik; hori burutu ondoren, barraketara pasatu ziren eta era berean bipildu zituzten. Bitarte horretan guztian, K eserita egon zen, goiz-haize gordinetik babestu nahiez bere txapela belarrietaraino sarturik. Bere aldamenean eserita zegoen emakumeak haur txiki bat, ipurdia agerian, negarrez, eta bi neskato zituen bakoitza beso banatatik berari heldurik. «Zatoz hona, nire ondoan esertzera» xuxurlatu zion K-k neskato txikienari. Inguruan zuten hondamen hartatik bere begirada apartatu gabe, K-ren hanka-gaitetik pasatu zen eta, haren besoarteko babesean, bere erpurua xurgatzen hasi zen. Beste ahizpa ere beregana etorri zen. Bi haurrak, zutik, elkarren kontra estu-estu bildu ziren; K-k begiak itxi zituen; besoetako haur txikia ezinegonez eta etengabeko kexuz ari zen. Atearen aurrean lerrokatu zituzten eta banaka-banaka irten-erazi zituzten. Gainean zeramatzatzen gauza guztiak uztera behartu zituzten, baita zenbaitek bere oherako jantziaren gainean zeraman manta ere; K-ren aurrean zihoan emakume bati zakur-nagusi batek irrati txiki bat kendu zion, lurrera bota zuen eta hankapean zanpatu zuen. «Irratirik ez», esplikatu zuen. Ateaz beste aldean, gizonak ezkerretan zerrendatu zituzten, eta emakumeak eta haurrak eskubitan. Honez gero hutsik zegoen esparruaren ateak giltzaz itxi zituzten. Ondoren kapitainak, megafonoz garraisisika aginduak ematen ikusia zuten gizon ilegorri sendo hark, Free Corps-etako bi goardiak irten erazi zituen, eta itxitura aurrean zerrendaturiko gizonen aurrez aurre jarri zituen. Goardiak armarik gabe zeuden eta beren jantziak zarpaildu-antzera zituzten; Goardi-postuan zer gertatu ote zen galdetzen zion K-k bere buruari. «Ea, esan zuen kapitainak, nortzu dira falta direnak?» Deiera hiru gizon falta ziren. Beste barraka batetan lo egiten zuten, eta K haiekin sekulan hitzerdi bat hitzegin gabe zegoen. Bere aurrean firmes jarriarik zeuden goardiei hitzegiteko, garraisi bizitan ari zen kapitaina. Hasieran, megafonoarekin garraisisika ohiturik zegoelako-edo ari ote zen, pentsatu zuen K-k

14, Larunbata

Gaixoa ni!

06:45
Dianak. Merkatuko kaletik abiatuta.

08:00
Zezen-entzierroa. Zortzi-garrena, festetako azkena.

09:30
Erraldoiak eta Buruhan-diak. Konpartsaren azken irteera Ezpeletaren jauregitik (kale Nagusia).

10:45
San Ferminen Zortziurrena. Udaletxe plaza. Udalbatza San Lorentzo parrokiara joanen da, elizkizunean parte hartzera. Bertan Katedraleko Musika Kapera eta ganbera-orkestra arituko dira.

11:00
Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.

11:30
Hauek festak hauek! Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

Birjolastu. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

12:00
Musika kalean. Irteera Karlos III.aren etorbidetik eta Descalzos kaletik.

Jota-kantaldia. Sarasate pasealekua. Camino Martí-nez jota-eskola.

Herri-kirolak. Foruen plaza. Nafarroako Txinga-erute Txapelketa (gizonak). Nafarroako Txinga-erute Txapelketa (emakumeak). Aizkora-erakustaldia (kana-enborra eta zutikako ebaketa). Aimar Irigoien harri-jasotzailearen erakustaldia.

13:00
Musika-bandak. Gurutze-ko plaza. Vianako Musika Banda.

Agurra Erraldoi eta Buruhandien Konpartsari. Udaletxe plaza.

17:30
Plazako zaldunen, mandakoen eta musika-bandaren desfilea. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino.

18:00
Hauek festak hauek! Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

Kirol Ari. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gune berria. 8 – 14 urte (orientagarria). 20:00ak arte.

Birjolastu. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea, birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 21:00ak arte.

Musika kalean. Jota-erronda. Udaletxe plaza.

Kulturen kalejira 2018. Aniztasuna kolore bizian. Irteera Udaletxe plazatik.

18:30
Zezen-feriaren zortzigarren zezenketa, festetako azkena. Zezen-plaza.

19:00
